

Ekintza klimatikoa NPB berrian

2014/2020 epealdirako onartu berri den NPBaren (Nekazaritza Politika Bateratua) erreformaren helburua nekazaritza-sektoreak aurrez aurre dituen erronka berriei erantzutea da, horien artean klima-aldaketak garrantzi berezia izanik. Ekintza klimatikoak bultzada irmoa jaso du, ponentzian aztertuko diren egokitzapen- eta arintze-beharrei erantzuten saiatzen diren tresnak eta potentzialak barne hartzean. Hala ere, klima-aldaketaren ondorioen aurka eraginkortasunez borrokatzeko potentziala duten tresna eta pizgarri egokiak ezartzeaz gain, ekintza hori galarazten duten erakunde, teknika, gizarte eta ekonomiaren alorreko oztopoei ere aurre egin behar zaie, horiek Nekazaritza Garapeneko Programetan barne hartzea eragotzi eta galarazi ere egin ahal baitute.